

¡AGUR, ERREENTERI!

BIXENTE BARANDIARAN

1. Erreterira nator
biotza pozturik
nola nagoen beti
oi ezin azturik
oir etzait faltatzen
laun egitazkorik
nola egin nituan
nik oso gazterik
eta ez det pensatzen
oraindik uzterik.
2. Erretereri izandet
beti gogokoa
bertara juatea
neretzat naikoa
berdin aste eguna
edo igandekoa
neretzat izatenda
zori onekoa
egun bat izaten det
pozez betekoa.
3. Maiteenak or ditut
nere anaietan
beti artutzen naute
arpegi alaietan
ondo konpontzen gera
dauzkagun gaietan
alkartuta exeriaz
bertako maietan
aurten ere or nainuke
Madalen jaietan.
4. Pentsatutzendet ondo
artuko nautela
badakik oso biotz
biguna dutela
ziur egon bada ori
pentsatzen detela
aurten ere artzea
urtero bezela
ez nitzake juango
ain pozik bestela.
5. Erri au ari zaigu
ainbeste azitzen
bañan pakeak ez du
askorik luzitzen
gainbera guazela
ez deu ikusitzen
intentzio txar oiek
ez badira utzitzen
kostako zaigu emen
gustora bizitzen.
6. Emen tokatu zaigu
jendez betetzea
Gipuzkoa jarri da
Txinaren antzea
iñork ez du juanai
emendik atzea
bañan bearrezkoa da
zerbait pentsatzea
ez algenduke obe
alkar maitatzea.
7. Obe genduke emen
ibiltzea kontuz
bukatzea nai bada
miseri ta kantuz
gauzak egin ditzagun
ain ondo pentsatuz
oroitu gaitezen
nor bere pekatuz
ondo bizi giñezke
alkarri barkatuz.
8. Albadet au eiteko
esan naute neri
borondate oi badet
eskerrak Jaunari
pozikan egiten det
nik aldedan ori
aldaba ez diot nai
utsegin iñori
agur anai arrebak
ta agur Erretereri.